BILBOKO UDALEKO GIZARTE EKINTZA SAILAREN ETA EHUNKA SARE KOMUNITARIOA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, ZEINAREN BIDEZ DIRULAGUNTZA IZENDUN BAT BIDERATZEN BAITA, SAN FRANTZISKO, BILBO ZAHARRA ETA ZABALA AUZOETAN ETORKIZUNEKO KUDEAKETA ZENTROA ABIAN JARTZEKO PROIEKTU KOMUNITARIOAREN DIRULAGUNTZA IZENDUNA BIDERATZEN DUENA 2026AN.

CONVENIO ENTRE EL ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y LA ASOCIACION EHUNKA SARE KOMUNITARIOA ELKARTEA POR EL QUE SE CANALIZA LA SUBVENCIÓN NOMINATIVA PARA EL PROYECTO COMUNITARIO DE PUESTA EN MARCHA DE UN FUTURO CENTRO DE GESTIÓN COMUNITARIA EN LOS BARRIOS DE SAN FRANCISCO, BILBAO LA VIEJA Y ZABALA, EN EL AÑO 2026.

BILDURIK

Alde batetik, JUAN IBARRETXE KARETXE Bilboko Udaleko Gizarte Politikak Koordinatzeko Unitateko titularra eta Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi ordezkaria.

Eta bestetik, MARTA PEREZ ECHEANDIA Andrea, EHUNKA SARE KOMUNITARIOA ELKARTEAren (hemendik aurrera, EHUNKA) (irabazi-asmorik gabeko elkartea; IFZ: G22515423; egoitza: Corazón de María, 5 behea, Bilbao, ordezkari gisa.

Alde biek elkarri onartu diote Hitzarmen hau egiteko eta sinatzeko legezko gaitasun osoa, eta horretarako

ADIERAZTEN DUTE

I.- EHUNKAk San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala auzoetan esperientzia komunitario bat garatzen ari da herritarren parte-hartzea, gizarte-kohesioa, lurraldeko eragileen arteko lankidetza eta interes orokorreko ekimen komunitarioen eraikuntza bultzatzeko.

Horretarako, sare komunitario bat bultzatzen du, dauden harreman eta dinamika komunitarioak sendotzeko, herritarren, elkarteen, baliabide komunitarioen eta administrazio publikoen arteko topaketa-, partaidetza- eta elkarlan-guneak sustatzeko, eta Kudeaketa Komunitarioko Zentro bat sortzeko eta

REUNIDOS

De una parte D. JUAN IBARRETXE KARETXE, titular de la Unidad de Coordinación de Políticas Sociales y Concejal Delegado del Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao.

Y de otra: Dª. MARTA PEREZ ECHEANDIA, actuando en representación de la asociacion EHUNKA SARE KOMUNITARIOA ELKARTEA, asociación sin ánimo de lucro y con NIF G22515423 (en adelante EHUNKA), con domicilio en la calle Corazón de María, 5 bajo, de Bilbao.

Ambas partes se reconocen plena capacidad legal para obligarse y suscribir el presente Convenio, y a tal fin

EXPONEN

I.- Que EHUNKA viene desarrollando una experiencia comunitaria en los barrios de San Francisco, Bilbao La Vieja y Zabala orientada a favorecer la participación ciudadana, la cohesión social, la colaboración entre agentes del territorio y la construcción de iniciativas comunitarias de interés general.

Para ello, impulsa una red comunitaria destinada a fortalecer las relaciones y dinámicas comunitarias existentes, promover espacios de encuentro, participación y trabajo conjunto entre la ciudadanía, el tejido asociativo, los recursos comunitarios y las

etorkizunean abian jartzeko prozesuan aurrera egiteko, bien bitartean dinamizazio, artikulazio komunitario eta parte-hartze sozialeko jarduerak sustatuz, proiektu horren oinarri sozialak eta antolamendukoak finkatzeko.

distintas administraciones públicas, así como avanzar en el proceso de creación y futura puesta en marcha de un Centro de Gestión Comunitaria, promoviendo mientras tanto actuaciones de dinamización, articulación comunitaria y participación social que permitan sentar las bases sociales y organizativas de dicho proyecto.

Gizarte Politikak Koordinatzeko Unitateak positiboki baloratzen du ekimen hori, gizarte-kohesioa, parte-hartze komunitarioa, gizarteratzea eta auzo hartzaileen garapen komunitarioa indartzen laguntzen duela uste baitu. Helburu horiek lotura estua dute Gizarte Ekintza eta Giza Eskubideak, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasuna arloei dagozkien politikekin eta jarduera-ildoekin.

La Unidad de Coordinación de Políticas Sociales, valora positivamente dicha iniciativa, al considerar que contribuye al fortalecimiento de la cohesión social, la participación comunitaria, la inclusión social y el desarrollo comunitario de los barrios destinatarios, objetivos que guardan una estrecha relación con las políticas y líneas de actuación propias de las áreas de Acción Social y Derechos Humanos, Convivencia, Cooperación e Interculturalidad.

Hitzarmen honek dirulaguntzaren zuzeneko emakida eta proiektua garatzeko esku hartzen duten alderdien konpromisoak arautzen ditu. Hitzarmena Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen itzalpean eta haren 22. eta 28. artikuluak betez prestatu da.

El presente convenio regulador de la concesión directa de la subvención asi como los compromisos de las partes que intervienen para el desarrollo del proyecto mencionado se ha confeccionado al amparo de la Ley de Subvenciones 38/2003 de 17 de noviembre y en cumplimiento de sus artículos 22 y 28.

II.- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 7.i), 73 eta 74. artikuluetan eta haiekin bat datozenetan xedatutakoarekin bat etorriz, administrazio publikoek eskumena dutela irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimenek gizarte-zerbitzuen arloan parte hartu eta horiek sustatu ditzaten; eta udal-eskumenak herritarren parte-hartzearen, bizikidetzaren, gizarte-kohesioaren, gizarteratzearen eta kulturartekotasunaren arloetan.

II.- Que la Ley de Servicios Sociales 12/2008 de 5 de diciembre, contempla en sus Art. 7.i), 73, 74 y concordantes, la facultad de las Administraciones Públicas para recurrir y fomentar la participación de la iniciativa privada sin ánimo de lucro, para el desarrollo de los servicios sociales, así como las competencias municipales en materia de participación ciudadana, convivencia, cohesión social, inclusión social e interculturalidad.

III.- Udaleko Osoko Bilkurak onetsitako Gizarte Ekintza Sailaren 2026ko ekitaldiko aurrekontuan **40.000,00** euroko diru-laguntza izenduna aurreikusita dagoela EHUNKA SARE KOMUNITARIOA ELKARTEArentzat, garatzen duen jarduera finantzatzeko. Finantzaketa 2026/31000/23011/4819970 kontura egingo da.

III.- Que en el presupuesto del año 2026 del Área de Acción Social aprobado por el Excmo. Ayuntamiento Pleno, está prevista una subvención nominativa a favor de la asociación EHUNKA SARE KOMUNITARIOA ELKARTEA por un importe de **40.000,00 €** para la financiación de la actividad. La financiación se realizará con cargo a la partida 2026/31000/23011/4819970.

IV.- EHUNKAk 2026ko ekitaldian garatu beharreko proiektua aurkeztu duela, bere

IV.- Que EHUNKA ha presentado el proyecto a desarrollar durante el ejercicio 2026, junto

egikaritze-aurrekontuarekin batera, hitzarmen honen eranskin gisa eransten diren dokumentuak, eta Gizarte Politiken Koordinazio Unitateak aldeko iritzia ematen diola ekimen horri. **Hitzarmena eta eranskin biak sinatu behar dira.**

Horren ondorioz, alderdi sinatzaileek

ERABAKITZEN DUTE

Hitzarmen hau sinatzea, klausula hauen arabera:

Lehena - XEDEA

Dirulaguntza bideratzea 2026. urtean San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala auzoetan etorkizuneko kudeaketa komunitarioko zentro bat abian jartzeko proiektu komunitario baten garapena, kudeaketa eta koordinazioa finantzatzeko.

Bigarrena - HELBURUAK

HELBURU OROKORRAK

Hitzarmen honen xede diren jardueren helburua da Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan herritarren parte-hartzea, gizarte-kohesioa eta komunitate-artikulazioa sustatzea, Kudeaketa Komunitarioko Zentro bat sortzeko eta etorkizunean abian jartzeko prozesuan lagunduz.

Horretarako, proiektuak honako helburu hauek dituzten jarduerak garatzea aurreikusten du: komunikazioa, parte-hartzea eta lurraldeko pertsonen, kolektiboen eta eragileen arteko harremana bultzatzea; garapen komunitarioko, gizarteratzeko eta gizarte- eta bizikidetza-ingurunea hobetzeko ekimenak sustatzea; biztanleria-sektore desberdinak proiektu komunitario horri lotutako partaidetza-guneetan sartzea sustatzea; eta, modu deszentralizatuan eta inguruko erakunde eta baliabideekin lankidetzan, lurraldean topaketa-, lankidetza-

con su presupuesto de ejecución, documentos que se incorporan como anexos al presente convenio, y que la Unidad de Coordinación de Políticas Sociales valora favorablemente dicha iniciativa. **Ambos anexos deberán firmarse, al igual que el presente convenio.**

En consecuencia, las partes firmantes

ACUERDAN

La suscripción del presente Convenio, con sujeción a las siguientes cláusulas:

Primera - OBJETO

Canalizar la subvención nominativa para financiar el desarrollo, la gestión y coordinación de un proyecto comunitario de puesta en marcha de un futuro centro de gestión comunitaria en los barrios de San Francisco, Bilbao La Vieja y Zabala, durante el año 2026.

Segunda - OBJETIVOS

OBJETIVOS GENERALES

Las actuaciones objeto del presente convenio tienen por finalidad promover la participación ciudadana, la cohesión social y la articulación comunitaria en los barrios de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala, contribuyendo al proceso de creación y futura puesta en marcha de un Centro de Gestión Comunitaria.

A tal efecto, el proyecto contempla el desarrollo de actuaciones dirigidas a favorecer la comunicación, la participación y la relación entre personas, colectivos y agentes del territorio; promover iniciativas de desarrollo comunitario, inclusión social y mejora del entorno social y convivencial; fomentar la incorporación de sectores diversos de la población a los espacios de participación vinculados al citado proyecto comunitario; y desarrollar, de forma descentralizada y en colaboración con entidades y recursos del entorno, actividades comunitarias orientadas a

eta eraikuntza-dinamikak sortzera bideratutako jarduera komunitarioak garatzea.

generar dinámicas de encuentro, colaboración y construcción comunitaria en el territorio.

HELBURU ZEHATZAK

- Herritarren eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoetan dauden eragile sozialen, komunitarioen eta instituzionalen arteko topaketarako, partaidetzarako eta lankidetzarako guneak sortzen laguntzea.

- Herritarren, elkarteen, baliabide komunitarioen eta administrazio publikoen arteko lankidetza- eta koordinazio-sareak indartzea, lan partekatuko eta lankidetzako dinamikak sustatuz eremu komunitarioan.

- Auzo hartzaileetako bizikidetza, gizarte-kohesioa, gizarteratzea eta pertsonen eta kolektiboen arteko harremanak sustatzera bideratutako jarduera eta jarduera komunitarioak garatzea.

- Lurraldeko hobekuntza eta garapen komunitarioko prozesuetan, kide izatearen sentimendua, identitate komunitarioa eta herritarren erantzunkidetasuna sustatzea.

- Gune komunitarioen erabilera eta dinamizazioa bultzatzea, topaketa, herritarren parte-hartzea eta interes komunitarioko ekimenen garapena bultzatzeko.

- Lurraldeko hezkuntza-, gizarte-, kultura- eta komunitate-eragileen artean lan-sareak sortzea eta sendotzea sustatzea, elkarlanerako eta esku-hartze partekaturako metodologiak bultzatuz.

- Herritarrek interes orokorreko ekimenetan aktiboki parte har dezaten bultzatzea, eta, horretarako, komunitate-bizitzan antolatzeko, lankidetzan aritzeko eta inplikatzeko dituzten gaitasunak indartzea.

OBJETIVOS ESPECÍFICOS

- Favorecer la generación de espacios de encuentro, participación y colaboración entre la ciudadanía y los distintos agentes sociales, comunitarios e institucionales presentes en los barrios de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala.

- Fortalecer las redes de colaboración y coordinación entre la ciudadanía, el tejido asociativo, los recursos comunitarios y las administraciones públicas, promoviendo dinámicas de trabajo compartido y cooperación en el ámbito comunitario.

- Desarrollar actuaciones y actividades de carácter comunitario orientadas a promover la convivencia, la cohesión social, la inclusión social y las relaciones entre personas y colectivos diversos de los barrios destinatarios.

- Fomentar el sentimiento de pertenencia, la identidad comunitaria y la corresponsabilidad ciudadana en los procesos de mejora y desarrollo comunitario del territorio.

- Impulsar la utilización y dinamización de espacios comunitarios que favorezcan el encuentro, la participación ciudadana y el desarrollo de iniciativas de interés comunitario.

- Promover la creación y consolidación de redes de trabajo entre los distintos agentes educativos, sociales, culturales y comunitarios del territorio, favoreciendo metodologías de colaboración e intervención compartida.

- Favorecer la participación activa de la ciudadanía en iniciativas de interés general, reforzando sus capacidades de organización, colaboración e implicación en la vida comunitaria.

- Herritarren, gizarte-erakundeen eta administrazio publikoen arteko lankidetzan oinarritutako prozesu komunitarioak garatzen laguntzea.

<u>Hirugarrena</u> - JARDUTEKO PRINTZIPIO OROKORRAK

Hitzarmen honen babesean garatutako jarduerak Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen printzipio inspiratzaileetara egokituko dira, eta, bereziki, honako hauetara:

a) Erkidegoaren parte-hartzea, auzoetako bizikidetza eta gizarte-kohesioa hobetzeko jardunen garapenean herritarren, elkarteen eta eragile komunitarioen inplikazio aktiboa sustatuz.

b) Gizarteratzea eta aukera-berdintasuna, pertsona guztien parte-hartzea bultzatuz inolako diskriminaziorik gabe, eta arreta berezia eskainiz gizarte-kalteberatasuneko egoeran edo arriskuan egon daitezkeen kolektiboei.

c) Kulturarteko eta belaunaldien arteko bizikidetza, adin, kultura eta gizarte-errealitate desberdinetako pertsonen arteko topaketa, harremana eta elkar ezagutzea sustatuz.

d) Hurbiltasun eta errotze komunitarioa, Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabalako ingurune sozialari lotutako jarduerak garatuz eta lotura komunitarioak eta auzoaren parte izatearen sentimendua sendotzera bideratuak.

e) Koordinazioa eta lankidetza, Bilboko Udalaren, EHUNKAren, gizarte-erakundeen, auzo-elkarteen, ikastetxeen eta lurraldean dauden gainerako eragileen arteko lankidetza bultzatuz.

f) Prebentzioa eta gizarte-kohesioa, gizarte-isolamenduko egoerak prebenitzen, inklusioa bultzatzen eta dauden sare sozial eta komunitarioak indartzen lagunduko duten ekimenak sustatuz.

- Favorecer el desarrollo de procesos comunitarios basados en la colaboración entre la ciudadanía, las entidades sociales y las administraciones públicas.

<u>Tercera:</u> PRINCIPIOS GENERALES DE ACTUACIÓN

Las actuaciones desarrolladas al amparo del presente convenio se ajustarán a los principios inspiradores de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, y, en particular, a los siguientes:

a) Participación comunitaria, promoviendo la implicación activa de la ciudadanía, las asociaciones y los diferentes agentes comunitarios en el desarrollo de actuaciones dirigidas a mejorar la convivencia y la cohesión social en los barrios.

b) Inclusión social e igualdad de oportunidades, favoreciendo la participación de todas las personas sin discriminación alguna y prestando especial atención a los colectivos que puedan encontrarse en situación o riesgo de vulnerabilidad social.

c) Convivencia intercultural e intergeneracional, fomentando el encuentro, la relación y el conocimiento mutuo entre personas de distintas edades, culturas y realidades sociales.

d) Proximidad y arraigo comunitario, desarrollando actuaciones vinculadas al entorno social de Bilbao La Vieja, San Francisco y Zabala y orientadas al fortalecimiento de los vínculos comunitarios y del sentimiento de pertenencia al barrio.

e) Coordinación y colaboración, impulsando la cooperación entre el Ayuntamiento de Bilbao, EHUNKA, las entidades sociales, las asociaciones vecinales, los centros educativos y demás agentes presentes en el territorio.

f) Prevención y cohesión social, promoviendo iniciativas que contribuyan a prevenir situaciones de aislamiento social, favorecer la inclusión y fortalecer las redes sociales y comunitarias existentes.

g) Irisgarritasuna eta parte-hartze irekia, garatutako jarduerak irisgarriak izango direla eta herritar guztiek baliatu ahal izango dituztela bermatuz.

h) Kalitatea eta etengabeko hobekuntza, egindako jardueren jarraipena eta ebaluazioa bultzatuz, gizartean eta komunitatean duten eragina hobetzeko.

g) Accesibilidad y participación abierta, garantizando que las actividades desarrolladas resulten accesibles y puedan ser disfrutadas por el conjunto de la ciudadanía.

h) Calidad y mejora continua, impulsando el seguimiento y evaluación de las actuaciones realizadas con el fin de mejorar su impacto social y comunitario.

Laugarrena -PROGRAMARI ATXIKITZEN ZAIZKION GIZA BALIABIDEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA JARDUERAK

GIZA BALIABIDEAK

EHUNKAk zerbitzua behar bezala emateko behar den pertsonal egokia izango du, eta haren eskumena eta erantzukizuna izango da bakar-bakarrik enplegatuen eta boluntarioen lan-kudeaketa, indarrean dagoen lan- eta gizarte-araudia kontuan izanik.

BALIABIDE MATERIALAK

EHUNKAk programa hau garatzeko behar diren baliabide materialak ditu. Era berean, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren, Lankidetzaren eta Kulturartekotasunaren Arloari programaren eta bere jardueren egutegia eta ordutegia emango dizkio, bai eta programari esleitutako profesionalen ordutegia ere.

JARDUERAK

Programa hau garatzeko, nagusiki jarduera hauek egingo ditu EHUNKAk:

- Proiektua ezagutarazteko eta herritarren parte-hartzea bultzatzeko informazio-, komunikazio- eta hedapen-jarduera komunitarioak.

- Herritarren proposamenak entzuteko eta jasotzeko mekanismoak ezartzea, bai aurrez aurrekoak, bai euskarri fisiko eta digitalen bidez.

Cuarta -RECURSOS PERSONALES, RECURSOS MATERIALES Y ACTIVIDADES ADSCRITAS AL PROGRAMA

RECURSOS PERSONALES

EHUNKA contará con el personal necesario e idóneo para la correcta implementación del programa, siendo de su exclusiva competencia y responsabilidad la gestión laboral de los empleados/as y los voluntarios/as, con respecto a la normativa laboral y social vigente.

RECURSOS MATERIALES

EHUNKA para el desarrollo de este programa cuenta con los recursos materiales necesarios. Asimismo, proporcionará al Área de Derechos Humanos, Convivencia, Cooperación e Interculturalidad el calendario y horario de desarrollo del programa y de sus actividades, así como el horario de los profesionales asignados al programa.

ACTIVIDADES

Las principales actividades que EHUNKA llevará a cabo en desarrollo de este programa serán:

- Actuaciones de información, comunicación y difusión comunitaria dirigidas a dar a conocer el proyecto y favorecer la participación ciudadana.

- Implantación de mecanismos de escucha y recogida de propuestas de la ciudadanía, tanto presenciales como a través de soportes físicos y digitales.

- Herritarrei irekitako informazio, harrera, orientazio eta arreta komunitarioko guneak garatzea.

- Topaketa komunitarioak, elkarrizketarako guneak eta parte hartzeko jarduerak antolatzea, bizikidetza, elkar ezagutzea eta auzokideen parte-hartzea sustatzeko.

- Lurraldeko elkarte, kolektibo, baliabide publiko eta eragile komunitarioekin sarean lan egiteko jarduerak bultzatzea.

- Herritarren parte-hartzea sustatzeko kanpainak egitea hainbat biztanleria-sektoreri zuzenduta.

- Partaidetza-tailerrak eta kontsulta-prozesuak egitea, intereseko beharrak, proposamenak eta ekimenak jasotzeko.

- Prestakuntza-ekintzak antolatzea herritarren parte-hartzearekin, bitartekaritzarekin, bizikidetzarekin, gizarteratzearekin eta lan komunitarioarekin lotutako gaietan.

- Erkidegoko beste esperientzia eta ekimen batzuekin trukatzeko eta ikasteko espazioak sustatzea.

- Partaidetza komunitarioko egiturak eta espazioak dinamizatzea, herritarrek proiektuaren garapenean parte har dezaten.

- Kulturarteko eta belaunaldien arteko jarduera komunitarioak garatzea, bizikidetza, harreman komunitarioak eta auzoko kide izatearen sentimendua indartzeko.

- Kultura-, arte- eta ikus-entzunezko adierazpeneko partaidetza-proiektuak

- Desarrollo de espacios de información, acogida, orientación y atención comunitaria abiertos a la ciudadanía.

- Organización de encuentros comunitarios, espacios de diálogo y actividades participativas dirigidas a promover la convivencia, el conocimiento mutuo y la participación vecinal.

- Impulso de actuaciones de trabajo en red con asociaciones, colectivos, recursos públicos y agentes comunitarios del territorio.

- Desarrollo de campañas de promoción de la participación ciudadana dirigidas a distintos sectores de población.

- Realización de talleres participativos y procesos de consulta orientados a recoger necesidades, propuestas e iniciativas de interés comunitario.

- Organización de acciones formativas en materias relacionadas con la participación ciudadana, la mediación, la convivencia, la inclusión social y el trabajo comunitario.

- Promoción de espacios de intercambio y aprendizaje con otras experiencias e iniciativas comunitarias.

- Dinamización de estructuras y espacios de participación comunitaria que favorezcan la implicación de la ciudadanía en el desarrollo del proyecto.

- Desarrollo de actividades comunitarias de carácter intercultural e intergeneracional dirigidas a fortalecer la convivencia, las relaciones comunitarias y el sentimiento de pertenencia al barrio.

- Realización de proyectos participativos de expresión cultural, artística y audiovisual orientados a

egitea, auzoetako komunitate-bizitzan herritarren inplikazioa sustatzeko.

- Aniztasuna, memoria kolektiboa eta lurraldean garatutako ekimenak ikusarazteko material komunitarioak egitea eta zabaltzea.

promover la implicación de la ciudadanía en la vida comunitaria de los barrios.

- Elaboración y difusión de materiales comunitarios destinados a visibilizar la diversidad, la memoria colectiva y las iniciativas desarrolladas en el territorio.

<u>Bosgarrena</u> – UDALAREN KONPROMISOAK

1. Bilboko Udaleko Giza Eskubide, Bizikidetza, Lankidetza eta Kulturartekotasun Arloak beharrezko lankidetza teknikoa emango du Bizikidetza eta Kulturartekotasun Ataleko Burutzatik abiatuta.

2. Gizarte Ekintza Sailak **40.000,00** euroko diru-laguntza emango du programa finantzatzeko, 2. eranskinaren (*"aurrekontu-fitxa"*) arabera banakatua.

3. Gizarte Ekintza Sailak zenbatekoa osorik ordainduko du hitzarmen hau onartu eta sinatu ondoren.

<u>Quinta</u>.- COMPROMISOS MUNICIPALES

1. El Área de Derechos Humanos, Convivencia, Cooperación e Interculturalidad del Ayuntamiento de Bilbao proporcionará la colaboración técnica necesaria a partir de la Jefatura de Sección de Convivencia e Interculturalidad.

2. El Área de Acción Social contribuirá a la financiación del Programa una subvención de **40.000,00** €, desglosada conforme al anexo 2 *("ficha de presupuesto").*

3. El Área de Acción Social efectuará el abono de la totalidad del presente Convenio una vez haya resultado aprobado y firmado.

<u>Seigarrena</u> - EHUNKAREN KONPROMISOAK

1. Hitzarmen honen helburu den programa kudeatzea, hitzarmenean azaldutako printzipio, helburu eta metodologiarekin bat etorriz.

2. Bere taldearen lanaldia eta egutegia antolatzea, ondorio horiei dagokienez lan-arau orokorretan eta zehazki hitzarmen kolektiboan ezarritakoa betez.

3. Koordinazioaz arduratuko den taldeko pertsona izendatzea.

4. Memoria bat aurkeztea (2027ko martxoaren 1a baino lehen), eta han egindako jardueren eta esku-hartzearen analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa egiteko.

<u>Sexta</u> - COMPROMISOS DE LA ASOCIACIÓN

1. Gestionar el programa objeto de este convenio en base a los principios, objetivos y metodología explicitada en este convenio.

2. Organizar la jornada de trabajo y el calendario laboral del Equipo cumpliendo a estos efectos, lo establecido en las normas laborales de carácter general, y en concreto, el convenio colectivo.

3. Designar la persona del Equipo que realizará las tareas de coordinación.

4. Presentar una memoria (antes del 1 de marzo de 2027), que recoja el análisis cuantitativo y cualitativo de la intervención realizada y de las actividades realizadas.

5. Dokumentazio ofizialean (memoriak, txostenak eta abar) erakunde bien logoa erabiltzea.

6. Elkarteak bere gain hartzen du erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzeko betebeharra, bere profesionalek garatutako jardueraren ondorioz pertsonei edo gauzei eragindako kalteengatiko arriskuak estaltzeko.

7. Hitzarmenaren urtebeteko indarraldia amaitu eta bi hilabeteko epean (**2027ko martxoaren 1a baino lehen**), programan egindako gastuaren justifikazioko kontua aurkeztu behar dute (Diru-laguntzei buruzko Legearen Erregelamenduaren 72. artikuluan ezarritakoaren arabera), ondoren deskribatzen denez:

   a) Diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen **urteko memoria bat**, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak zehaztuko dituena. Memoriak sistema bat eduki beharko du datuak sexuaren, adin tarteen eta jatorrizko herrialdearen arabera bereiziz biltzeko eta kudeatzeko. Era berean, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-sexista hartu beharko da kontuan aurkezten den dokumentazioan. **Memoria hau euskaraz eta gaztelaniaz Erregistro Orokorraren bidez aurkeztu behar da.** Era berean, diruz lagundutako ekintzak zein hizkuntzatan gauzatu diren zehaztu beharko dute.

   b) **Diru-sarreren eta gastuen balantze ekonomikoa**. Balantze horretan, gutxienez, hauek jasoko dira: diruz lagundutako jardueretan egindako gastuen egoera-orri adierazgarria, multzoka, eta, hala bada, hasieran izan duten aurrekontua (hitzarmeneko 2. ERANSKINean jasota daude) eta egon diren desbideratzeak.

Justifikazioari buruzko zenbait ohar:

5. Utilizar el logo de las dos instituciones en la documentación oficial (memorias, informes, etc.).

6. La asociación asume la obligación de contratar un seguro de responsabilidad civil para la cobertura de los riesgos por daños en personas o cosas, derivados de la actividad desarrollada por sus profesionales.

7. Dentro del plazo de dos meses desde la finalización del año de vigencia del Convenio (**antes del 1 de marzo de 2027**) deberán presentar, (de conformidad a lo establecido en el artículo 72 del Reglamento de la Ley de Subvenciones), cuenta justificativa del gasto realizado en el programa, según se describe a continuación:

   a) **Una Memoria Anua**l justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. La memoria deberá contener un sistema de recogida y gestión de datos desagregados por sexo, franjas de edad y país de origen. Asimismo deberá tener en cuenta la utilización no sexista del lenguaje y de la imagen en la documentación aportada. **Dicha memoria deberá presentarse en euskera y castellano vía Registro General. Del mismo modo, deberan detallar en que idioma se han llevado acabo las acciones objeto de la subvencion.**

   b) **Balance económico de ingresos y gastos**, que contendrá un estado representativo de los gastos incurridos en la realización de las actividades subvencionadas, debidamente agrupados, y, en su caso, las cantidades inicialmente presupuestadas (que figuran en el ANEXO 2 al presente convenio), y las desviaciones acaecidas.

Algunas consideraciones sobre la justificación:

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta hitzarmenean ezarritako epean egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa. Inbertsioen amortizazioak ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuen artean sartzen, horiek egiaztatzea oso zaila delako. Era berean, gauzazko diru-sarrerak deitutakoak ezin joko dira «diru-sarrera»tzat, arrazoi beragatik.

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado. No se admiten como gasto subvencionable las amortizaciones de inversiones, por las dificultades de comprobación de las mismas. Así mismo, tampoco podrán considerarse como "ingresos", los denominados ingresos en especie, por idéntico motivo.

1. Gastuak programa betearazteko aurreikusitako epearen barruan egin direla justifikatzen duen jatorrizko dokumentazioak honako hauek bereizi beharko ditu ondorio horietarako:

La documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, ha de distinguir, a estos efectos:

Programaren betearazpenarekin **zuzenean lotutako kostuak** oso-osorik justifikatu beharko dira fakturekin edo haien pareko froga-balioa duten gainerako dokumentuekin. Gastuen justifikazioa duten agirietan, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

Los **costes directamente** relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documentos de valor probatorio equivalente. Los documentos que soporten la justificación de gastos, incluirán, en todo caso, los siguientes datos:

- Entitate onuradunaren identifikazioa.
- La identificación de la entidad beneficiaria.
- Gastuaren xedearen deskripzioa; xede horrek zuzeneko lotura izan beharko du programaren betearazpenarekin.
- La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

Era berean, justifikazioa duten dokumentuak justifikatzen duten programari buruzkoak bakar-bakarrik izango dira.

Asimismo, los documentos que soporten la justificación se circunscribirán únicamente al programa que justifican.

Salbuespen moduan, jarduerak egiten dituztenak enpresak edo profesionalak ez diren pertsonak direnean, hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren **hartze-agiria** agertzen den dokumentuak aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailea identifikatzen duen dokumentuaren (NAN, AIZ edo pasaportea) kopiarekin aurkezten bada, eta haiekin batera aurkeztu beharko dira nahitaez, baldin zenbatekoa 200 eurotik gorakoa bada, jasotzailearen banku-kontuan ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentua.

Con carácter excepcional, en supuestos en que ocasionalmente, las actividades sean llevadas a cabo por personas que no ostenten la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de documentos en los que figure el **recibí** del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte) de la persona perceptora, a los que se acompañará necesariamente, cuando su importe sea superior a 200 €, el documento acreditativo de la realización del

abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

Pertsonal-gastuak nominak eta gizarte segurantzako kotizazioak aurkeztuz egiaztatuko dira.

Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la seguridad social.

Entitateak aurrekontuko fitxan (hitzarmen honen 2. eranskina) adierazi dituen **zeharkako kostuei** dagokienez, errekerimendu espresik ezean, ez da eskatuko agiri bidez justifikatzeko. Kostu hauek diruz lagundutako jardueraren erakunde edo pertsona onuradunari atxikiko zaizkio, kontabilitateko printzipioen eta arauen arabera, arrazoizko zatian eta betiere, kostu horiek jarduera egin den aldikoak badira. Jarduerari atxikitako kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen zenbatekoa baino handiagoa. Programa aurrekontuen fitxan adierazita dago (hitzarmen honen 2. ERANSKINA).

Con respecto a los **costes indirectos** señalados por la entidad en la ficha de presupuesto (anexo 2 del presente Convenio), salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes habrán de imputarse por la persona o entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, la imputación llevada a cabo pueda resultar superior al porcentaje de los costes directos del programa subvencionado, que figura en la ficha de presupuestos (ANEXO nº 2 al presente convenio).

Justifikazio-memoriako dokumentazioa Erregistro Orokorraren bidez aurkeztu beharko da.

La documentación relativa a la Memoria justificativa, deberá presentarse vía Registro General.

Gizarte-Politikak Koordinatzeko Unitateak justifikazio ekonomikoa beste erakunde batzuen aurrean aurkeztu behar izanez gero, elkarteak betebehar horiek betetzeko behar den guztian laguntzeko konpromisoa hartzen du.

En el caso de que la Unidad de Coordinación de Políticas Sociales tenga otras obligaciones de justificación económica frente a otras instituciones, la Asociación se compromete a colaborar en todo lo necesario para dar cumplimiento a dichas obligaciones.

Bilboko Udalak emandako diru-laguntza bateragarria da beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek emandakoekin. Gizarte Ekintza Sailari jakinarazi behar zaio diruz lagundutako programa ordaintzeko izan dituzten beste laguntza, diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk. Datu horiek jakin bezain laster egin beharko da jakinarazpena eta agiri bidez justifikatu. Edozelan ere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bidez lortzen den finantzaketa ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan. Handiagoa izanez gero, dagokion kopurua itzuli beharko dio Udalari.

La subvención concedida por el Ayuntamiento de Bilbao es compatible con las de otras administraciones o entes públicos o privados. Se tiene que comunicar al Área de Acción Social la obtención de otras ayudas, subvenciones, ingresos o recursos que financien el programa subvencionado. Esta comunicación deberá realizarse tan pronto como se conozca y justificarla documentalmente. En cualquier caso, el montante de la financiación obtenida, por subvenciones y otras fuentes, no podrá resultar superior al coste del programa subvencionado. En caso de que resultara superior, deberá proceder a reintegrar al Ayuntamiento el importe correspondiente.

Entitateak konpromisoa hartzen du programa garatzean sortzen diren agirietan Bilboko Udalaren logoa jartzeko; esaterako, gizarte eta hezkuntzaren arloko proiektuetan, txostenetan, informazioa emateko triptikoetan eta programari eta programako jarduerei buruzko publizitatean.

La entidad se compromete a insertar el logotipo del Ayuntamiento de Bilbao en los documentos resultantes del desarrollo del Proyecto, tales como proyectos socio-educativos, informes, trípticos informativos y publicidad sobre el Proyecto o las actividades del mismo.

Orobat aplikatuko zaie Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoa, publizitate aktiboari dagokionez, legearen 5. artikuluaren edukiarekin eta mugekin, urtebetez 100.000 eurotik gorako laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzen dituzten entitate pribatuei edota gutxienez beren urteko diru-sarrera guztien % 40 laguntza edo diru-laguntza publikoa dutenei, betiere gutxienez 5.000 euroko zenbatekora iritsiz gero.

Será de aplicación lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la información pública y Buen Gobierno, en lo relativo a la publicidad activa con el contenido y las limitaciones del artículo 5 de la Ley, a las entidades privadas que perciban durante el período de un año ayudas o subvenciones públicas en una cuantía superior a 100.000 euros o cuando al menos el 40% del total de sus ingresos anuales tengan carácter de ayuda o subvención pública, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros.

Programaren kanpoko ordezkaritza, bai entitateen, erakundeen, organismoen, pertsona publiko edo pribatuen arteko harremanetarako, bai hedabideekiko harremanetarako, aldez aurretik jakinarazi beharko zaio Gizarte-Politikak Koordinatzeko Unitateari, Prentsa Kabinetearekin koordinatzearren eta komunikazioaren xedea jakin dezan eta haien edukiak eta ordezkaritza adostua izan dadin, edo, hala balegokio, Udalak gauzatu dezan, hala behar duela irizten badio.

La representación externa del programa, tanto a efectos de relación entre entidades, instituciones, organismos, personas públicas o privadas, como con los medios de comunicación deberá ser comunicada previamente a la Unidad de Coordinación de Políticas Sociales para su coordinación con el Gabinete de Prensa, a los efectos de que conozca el objeto de la comunicación y para que los contenidos y la presentación de los mismos sea consensuada o, en su caso, realizada por el Ayuntamiento, si así se valorase.

Era berean, publiko egin beharko du udal-finantzaketa, Udalaren logotipoa ezarriz sortzen dituen material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), zerbait oroitzeko plaketan, bitarteko elektronikoetan, ikus-entzunezkoetan zein idatzizko hedabideetan argitaratutako iragarkietan. Horretarako, Gizarte Ekintza Sailak udalaren logotipo berria emango dio entitateari. Era berean, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista hartu beharko da kontuan aurkezten den dokumentazioan.

Asímismo, deberá hacer pública la financiación municipal incluyendo el logotipo del Ayuntamiento en los materiales impresos que genere (carteles, folletos, hojas informativas...), en las placas conmemorativas, en los medios electrónicos o audiovisuales o en los anuncios que pueda publicar en los medios de comunicación escrita. Para ello, el Área de Acción Social facilitará a la entidad el nuevo logotipo municipal. Igualmente, se deberá tener en cuenta la utilización no sexista del lenguaje y de las imágenes en la documentación aportada.

Beste alde batetik, hizkuntza ofizial biak, euskara eta gaztelania, erabili beharko dira diruz lagundutako programaren publizitatea egiteko karteletan, testuetan eta dokumentuetan.

Asimismo, se deberán utilizar ambas lenguas oficiales, euskera y castellano, en los carteles, textos y documentos que se elaboren como elementos de publicidad del programa

Programaren zabalkundea egiteko jendaurreko agerraldiak eta megafoniaz emandako mezuak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

subvencionado. De igual modo, las intervenciones públicas de promoción ligadas al programa objeto de subvención, así como los mensajes que se comuniquen por megafonía, serán bilingües utilizando el euskera y el castellano en ese orden.

Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak ematen dituzten langileen gizarte-segurantzako gastuak hitzarmena sinatu duen elkartearen kontura eta horren kontura soilik izango dira. Horrek esan nahi du inoiz ezin izango direla Bilboko Udaleko langiletzat edo horren menpeko langiletzat hartu.

Los gastos de Seguridad Social y otros que se deriven del personal que preste sus servicios para la realización del objeto de este Convenio, serán de cuenta única y exclusivamente de la Asociación suscribiente, lo cual indica que nunca podrán considerarse como personal adscrito al Ayuntamiento de Bilbao, ni bajo su dependencia.

Hitzarmena sinatu duen entitateak bere gain hartzen du hitzarmenean ezarritako baldintza eta betebeharrak betetzea, eta halaber diru-laguntzen lege orokorrean eta aplikatzekoa den gainerako legedian ezarritakoak betetzea, eta iruzur egiteko edo faltsutzeko saioren bat egiten bada diru-laguntza publiko bat eskuratzearren, gerta liteke horrek erantzukizun penala ekartzea, Zigor Kodearen 308. artikuluan ezarritakoaren arabera. Hau zehazten du:

La entidad convenida se compromete a cumplir con los requisitos y obligaciones establecidas en este convenio, en la ley general de subvenciones y demás legislación aplicable, entendiendo que cualquier intento de fraude o falsificación de la realidad con el objeto de obtener una subvención pública puede dar lugar a responsabilidad penal de acuerdo con lo establecido en el artículo 308 del Código Penal, que determina que:

Erantzukizun penala da:

1. Administrazio publikoetatik 10.000 euro baino gehiagoko dirulaguntzak edo laguntzak eskuratzea, haiek lortzeko betekizunak faltsutuz edo haiek lortzea eragotziko luketen baldintzak ezkutatuz.

2. Administrazio publikoen funtsekin osorik edo zati batean ordaindutako jarduera bat egitean, funts horietatik 10.000 euro baino gehiago erabiltzea dirulaguntza edo laguntza eman zen helburuak ez diren beste batzuetarako.

Constituye infracción penal:

1. La obtención de subvenciones o ayudas de las Administraciones Públicas por importe superior a 10.000 € falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que la hubiesen impedido.
2. En el desarrollo de una actividad sufragada total o parcialmente con fondos de las Administraciones Públicas, la aplicación de los mismos en una cantidad superior a 10.000 €, a fines distintos de aquellos para los que la subvención o ayuda fue concedida.

Erakundeak bermatu beharko du diruz lagundutako programaren erabiltzaileak euskaraz artatuak izan daitezkeela, hala nahi badute. Horretarako, jarduera hasten den unean, programan euskaraz edo gaztelaniaz parte hartu nahi duten aukeratzeko aukera emango zaie erabiltzaileei.

La entidad adjudicataria deberá garantizar que las personas usuarias del programa subvencionado puedan ser atendidas en euskera, si así lo desean. Para ello en el momento del inicio de la actividad se les dará a los usuarios la opción de elegir si quieren formar parte del programa en euskera o en castellano.

Erakundea, lehenik eta behin, euskaraz zuzendu beharko zaie erabiltzaileei, bai aurkezpenetan eta elkarrizketetan, bai eta argitaratzen dituzten mezu elektroniko, liburuxka eta karteletan ere.

La entidad adjudicataria tendrá la obligación de dirigirse en primer lugar en euskera a los usuarios tanto en las presentaciones y entrevistas como, en los correos electrónicos, folletos y carteles que publiquen.

Zazpigarrena - ZERBITZUA BESTE BATZUEI AZPIKON TRATATZEKO AUKERA

Hirugarrenekin itundutako/kontratatutako jarduera diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada, hau da, 60.000 € euro baino handiagoa, idatziz formalizatu beharko da eta Udalak baimendu beharko du aurretiaz.

Diruz lagundutako jarduerak guztiz edo partez gauzatzeko, ezin egingo da inondik ere itunik/kontraturik egin Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekuren bat hautsi duten pertsona edo entitateekin, entitate onuradunarekin loturaren bat duten pertsona edo entitateekin (Erregelamenduaren 68.2. artikuluan adierazitako kasuetan joko da lotura dagoela) eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7. artikuluan adierazitako gainerako pertsonekin.

Séptima - POSIBILIDAD DE SUBCONTRATAR CON TERCEROS

Si la actividad concertada/contratada con terceros excediera del 20% del importe de la subvención y dicho importe fuera superior a 60.000€, deberá formalizarse por escrito y autorizarse previamente por el Ayuntamiento.

En ningún caso podrá concertarse/contratarse la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art. 13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con la entidad beneficiaria (considerándose que existe vinculación en los casos recogidos en el art. 68.2 del Reglamento), ni con las demás personas previstas en el artículo 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

Zortzigarrena - ALDAKETA

Diruz lagundutako programan funtsezko aldaketak egin ahal izateko, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailari eskatu behar zaio idatziz eta hark baloratu beharko du egokia den ala ez.

Funtsezko aldaketak egiteko eskariak arrazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuan eta kronograman izango duten eragina zehaztu beharko da. Gobernu Batzordeak Gizarte Ekintza Sailaren ordezkaritzari eskuordetzen dio aldaketa horiek baimentzeko eskumena.

Horretarako, honako hauek jotzen dira funtsezko aldaketatzat:

- Helburu orokor eta berezietako aldaketak.

Octava - MODIFICACIÓN

Cualquier modificación sustancial del programa subvencionado habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao quien deberá valorar su procedencia.

Las solicitudes de modificación sustancial han de estar motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la Delegación del Área de Acción Social la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto, se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.

- Onartutako aurrekontuko partidetan % 20tik gorako bariazioak (partiden arteko aurrekontu-bariazioek ez dute eraginik izango zeharkako kostuetan), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez dutenean.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Diru-laguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen ez dituzten gainerako aldaketak onartu ahal izango dira justifikazioaren unean.

- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen la minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

<u>Bederatzigarrena</u> - PROGRAMAREN JARRAIPENA EGITEA, GAINBEGIRATZEA ETA KOORDINATZEA

Programa nola gauzatzen den Behatzeko eta Ikuskatzeko Batzorde bat eratuko da, eta urtean bi aldiz bilduko da, gutxienez, eta hargatik eragotzi gabe beste bilera batzuk ere egitea, alderdiek proposatuta, beharrezkoak izanez gero. Bilera horietan, honako hauek aztertuko dira: jardueren gaineko memoriak, urteko memoria eta programaren kudeaketarekin zerikusia duten beste gai batzuk.

Jarraipen Batzordea osatuko dute Giza Eskubideen eta Bizikidetzaren Ataleko Burutzak eta atal horrek izendatutako teknikariek, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren, Lankidetzaren eta Kulturartekotasunaren Arloko ordezkari gisa, eta, erakundearen aldetik, proiektuaren koordinazioaz arduratuko den pertsonak eta erakundeak horretarako izendatutako beste batek.

Proiektuaren koordinazio teknikoa Giza Eskubideen eta Bizikidetzaren Ataleko Burutzari dagokio. Erakunde horren aurrean solaskide arrunta izango da, eta hitzarmenaren xede diren jardueren jarraipen teknikoa egingo du.

<u>Novena</u>: - SEGUIMIENTO, SUPERVISIÓN Y COORDINACIÓN DEL PROGRAMA

Se creará una Comisión de Seguimiento y Supervisión del Programa que se reunirá, como mínimo, dos veces al año, y sin perjuicio de las sesiones que fueran necesarias a propuesta de las partes. En dichas sesiones se analizarán los informes de la actividad, memoria anual y otros aspectos relacionados con la gestión del programa.

La Comisión de Seguimiento estará formada por la Jefatura de la Sección de Derechos Humanos y Convivencia y por personal técnico designado por dicha Sección, como representantes del Área de Derechos Humanos, Convivencia, Cooperación e Interculturalidad, y, por parte de la entidad, la persona responsable de la coordinación del proyecto y otra designada al efecto por la entidad.

La coordinación técnica del proyecto, por parte del Ayuntamiento de Bilbao, corresponderá a la Jefatura de la Sección de Derechos Humanos y Convivencia, que actuará como interlocutora ordinaria ante la entidad y ejercerá las funciones de seguimiento técnico de las actuaciones objeto del convenio.

Hamargarrena - EPEA

Hitzarmen hau 2026ko uztailaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Hamaikagarrena.- HITZARMENA AZKENTZEA

Hitzarmen hau suntsiaraziko da beraren xede diren jarduketak betetzearen ondorioz edo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. artikuluko 2. zenbakian ezarritako **suntsiarazteko arrazoiren** bat izatearen ondorioz:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.

b) Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.

c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebehar edo konpromisoak ez betetzea.
Halakoetan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen alderdiari, 10 eguneko epean bete ditzan betegabetzat jotako betebehar edo konpromisoak. Errekerimendua hauei komunikatuko zaie: hitzarmenaren betearazpenaren jarraipen, zaintza eta kontrolerako mekanismoaren arduradunari eta sinatu duten gainerako alderdiei.
Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak alderdi sinatzaileei jakinaraziko die badagoela hitzarmena suntsiarazteko arrazoia, eta hitzarmena suntsituta dagoela ulertuko da. Hitzarmena arrazoi horregatik suntsiarazten bada, gerta daiteke sortutako galerak ordaindu behar izatea, hala aurreikusi bada.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaratzen duen erabaki judiziala.

Décima - PLAZO

El presente Convenio tendrá vigencia desde el 1 de julio de 2026 hasta el 31 de diciembre de 2026.

Undécima.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en alguna de las **causas de resolución** recogidas en el apartado 2 del artículo 51 de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público:

a) El trascurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.

b) El acuerdo unánime de todos los firmantes.

c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.
En este caso, cualquiera de las partes podrá notificar a la parte incumplidora un requerimiento para que cumpla en un plazo de 10 días con las obligaciones o compromisos que se consideran incumplidos. Este requerimiento será comunicado al responsable del mecanismo de seguimiento, vigilancia y control de la ejecución del convenio y a las demás partes firmantes.
Si transcurrido el plazo indicado en el requerimiento persistiera el incumplimiento, la parte que lo dirigió notificará a las partes firmantes la concurrencia de la causa de resolución y se entenderá resuelto el convenio. La resolución del convenio por esta causa podrá conllevar la indemnización de los perjuicios causados si así se hubiera previsto.

d) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

e) Aurrekoez bestelako edozein arrazoi, hitzarmenean edo beste lege batzuetan aurreikusita badago.

Hitzarmen hau **suntsiaraztearen ondorioak** Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52. artikuluan ezarritakoak eraenduko ditu.

Hamabigarrena - ITZULKETA

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluan eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren III. tituluan ezarritakoa aplikatuko da.

Hamahirugarrena - DATU-BABESA

Hitzarmen honen esparruan, aldeek adierazten dute ez dagoela (EB) 2016/679 Erregelamenduaren (DBEO) 28. artikuluaren ondorioetarako tratamendu-enkargurik. Alderdi bakoitzak bere eskumenen esparruan tratatuko ditu datu pertsonalak, tratamenduaren arduradun gisa, eta indarrean dagoen datuen babeserako araudiaren (DBEO eta aplikatu beharreko gainerako araudia) arabera jardungo du.

Alderdi bakoitza bere tratamenduez arduratuko da, eta datuen konfidentzialtasuna, osotasuna eta segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak ezarriko ditu. Halaber, alderdiek konpromisoa hartzen dute, hala badagokio, datu pertsonalen segurtasuna urratuz gero komunikatzeko eta interesdunen eskubideak erabiltzen laguntzeko.

Hamalaugarrena - ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta, hortaz, klausulez gain, Zuzenbidean aplikagarriak diren arauek ere arautuko dute.

e) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores previstas en el convenio o en otras leyes.

Los **efectos de la resolución** del presente convenio se regirán por lo determinado en el artículo 52 de la Ley 40/2015 de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Decimosegunda - REINTEGRO

Será de aplicación lo dispuesto en el título II de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones y el título III del Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

Decimotercera - PROTECCIÓN DE DATOS

En el marco del presente Convenio, las partes declaran que no existen encargos de tratamiento a los efectos del artículo 28 del Reglamento (UE) 2016/679 (RGPD). Cada una de las partes tratará los datos personales en el ámbito de sus competencias como responsable del tratamiento y actuará conforme a la normativa de protección de datos vigente (RGPD y demás normativa aplicable).

Cada parte se responsabilizará de sus propios tratamientos y establecerá las medidas necesarias para garantizar la confidencialidad, integridad y seguridad de los datos. Asimismo, las partes se comprometen, en su caso, a comunicarse en caso de violación de la seguridad de los datos personales y a colaborar en el ejercicio de los derechos de los interesados.

Decimocuarta - REGIMEN JURÍDICO

El presente Convenio tiene naturaleza Administrativa y se rige en consecuencia además de por sus propias cláusulas, por las normas de Derecho que requieran ser de aplicación.

<u>Hamabosgarrena</u>-BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN

Hitzarmen honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak dira onuradunek beste administrazio edo ente publiko edo pribatu batzuek emanik (Estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak) helburu berarekin jasotzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin. Halakorik jasotzen badu, Udalari jakinarazi behar zaio.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan diruz lagunduko den ekintzaren kostua baino, ez banaka hartuta ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batuta; handiagoa bada, aldatu egingo da diru-esleipena, edo itzuli egin beharko da dagokion neurrian.

Adostasuna agertzeko, parte hartzen duten alderdiek hitzarmena sinatu dute kopia bitan, aipatutako lekuan eta egunean.

Bilbon,

Bilboko Udalaren ordezkari gisa
Gizarte Politikak Koordinatzeko Unitateko titularra eta Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi ordezkaria

Sin.: Juan Ibarretxe Karetxe

<u>Decimoquinta.</u>- COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES

Las subvenciones que se articulan en el presente convenio son compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que para la misma finalidad perciban las beneficiarias de otras administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, estando obligadas a poner en conocimiento del Ayuntamiento la obtención de las mismas, si las hubiera.
El importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso daría lugar a la modificación de la concesión o reintegro correspondiente.

En prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente Convenio por duplicado, en el lugar y fecha indicados

En Bilbao,

En representación de la asociación EHUNKA SARE KOMUNITARIOA ELKARTEA

Fdo: Marta Perez Echeandia